

# Ilustrazio berriaren letoizko urrea

• JOXE AZURMENDI •

[FILOSOFIA ETA IDAZLEA]

Ez nuen ja Ilustrazioaz gehiago hitz egiteko gogorik. Baina esku artean erori baitzait egunotan, gutxi gorabehera nik esan ahal izango nukeena hobeto esanda liburu batean, ezin diot uko egin, pasarte batzuk irakurlearentzat hona aldatzeko plazerrari. Izan ere, autorea gure hizkarnizka txoroetatik urrutitu dago, Madrilen da Filosofiako profesorea. Ez da alderdikota gure kontuetan, esan nahi dut. Ilustrazioaren ezagutzaila onenetakoa da Estatuan. Hegelen espezialista. J. M. Ripalda, haren izena, eta liburuaren izenburua *Políticas postmodernas*, joan den azaroan Madrilen argitaratua. Gainera, gure etxean inork esandakoa egitagoa eta serioagoa izan ohi da askotan, urrutikoak esan badu.

Ilustrazioa denok maite dugu: XVIII. mendeen. Zer esan Ilustrazioa gaur banderatzat hartzeaz eta hartzen dutenez? «*Es una hipocresía seguir manteniendo la retórica ilustrada: lo que esa retórica pretende, fue en parte opuesto directamente a lo que hoy significa*». Ripaldak maiz errepikatzen du, egungo politikak bere burua «*erretorika ilustratuaz*» zuritzen duela. «*Ilustración degenerada*», «*una Ilustración como mínimo vacía*», etab., irakurriko diozu behin eta berriz.

Politika espainolari orokorki beha, Ripaldak gogoratzen digu, nola PSOE aginteratu delarik, nazionalista gazteek. Modernitatearen alde apustua egin duten, irudi berria emateko «*nazionalismo español berriari*». Marx errekarabota zen. Argiak eta Ilustrazioa ziren bandera berria. (Eskuinetik etorriz PP urteak geroago entseatzan ari den bera). «*Su modelo proclamado fue el despotismo ilustrado de Carlos III, que en 1988 celebraron a bombo y platillo*». Eta

ironizatzen du Ripaldak: «*Claro que el 'Fidelio de Beethoven' tiene como protagonista un preso político en las mazmorras de Sevilla bajo el reinado del susodicho monarca. Pero mazmorras y cloacas son por lo visto inevitables bajo el reino de las luces*».

Ripalda Francoren garaian ezkerreko tradizioan lan egindako intelektuala da, Alderdi Komunistan militatua, etab., baina igogailu berrietara ez birziklatua. (Nirekin batera estudiatu zuen PSOEko aparatuan goi-goiko intelektuali bati, esan nion behin, aspaldi samar: «*Intelektualak lehenago denak komunistak ziren, orain denak PSOEra arri-matu dira*». Eta berak: «*PSOEra ez, Botere-ra*»). Ripaldari ezagutzen genion beste liburu bat postmodernitateaz, *De Angelis* (1996), mugimendu estetikoaz batez ere. Orain Espainiako politika postmodernoz dihardu. Titulua ironikoa da. «*Todos sabemos*

*que la discrepancia entre la política real y los valores que proclama es enorme (una tradición por demás cristiana)*». Ezkertiar kritikoak —euskaldunak batikbat— Ilustrazioarena baino gai interesgarriagoak erruz aurkituko ditu haren liburu honetan, beti luma finez jorratuak. Baina alor txiki honetaraxe mugatuko ditut apunteok.

Ez baita Espainiako kontua bakarrik. Aitzitik, progresia espainolak ez du egiten, kanpoan ikusitakoa imitatu besterik (Ripaldaren iritziak ari naiz ematen). Askotan, imitazioaren imitazioa baizik ez; alegia, metropoli amerikararen imitazio europarraren imitazioa. Eta, Gerra Hotzaz gero, «*una retórica piadosamente humanista*» nagusitu dela Inperio guztian, oharatzen digu. Gubernu denak piadosoak eta arrazoizkoak bilakatu dira. Estatuak zetazko eskularru

xuriz jantzi ditu burdinazko atzaparrak. «*Bajo el nombre de la Razón se restaura triunfalmente la Ilustración normativa y violenta que angustió a Horkheimer y Adorno*». Bertute gisa unibertsaldut den hipokrisia unibertsal honi, Ripaldak «*fundamentalismo democrático abstracto, pura cita de la Ilustración*» deritxo.

Hala, bada, politiko guztiak ilustratuak eta etikoak bihurtu zaizkigu. Politikoa dira etikaz egunoro mintzo zaizkigunak, ez filosofoak. Orduan, filosofo bat etikaz mintzatzea ekibokoa gerta daiteke. (Ez du esaten, Goztain bat etikaz mintzatzea, politikoez ez dutela tratatzen). «*Y es que hablar de ética en este momento me suena más al discurso de los políticos que al discurso de los filósofos. En todo caso me sonaría al discurso de los filósofos rancieros tipo, vamos a decir, siglo XVIII, que por eso, por ser rancio, es el que utilizan todos nuestros políticos desde la derecha a la izquierda*». Honetan ez baitago eskuinik eta ezkerrik. Etika, Ilustrazioa, balioak, hori da egungo errosario politikoa. Baina Ripaldak ongiegi ezagutzen du Ilustrazioa, tranpan erortzeko: «*Las ideas ilustradas, indispensables, son a la vez peligrosas, producen efectos según quién las hegemonice en qué contexto*». Izan ere, oso printzipio abstraktu ederrak dira, edozertarako balio lezakete. Printzipio ilustratuon kritika —«*la impotencia política de los principios ilustrados*»— jada Hegelek egin zuela, gogoratzen digu. Are gehiago Marxek. (Baina hori bat-batean zeharo ahaztu bide zaie behialako marxista gogorreil). «*Estos principios, precisamente por ser inerte abstractos, serán hegemonizados por la realidad dominante*».

Bere garaian Ilustrazioak, «*antes de que se convirtiera en depósito de recursos ideológicos*», problematizatzen, ordena soziala kuestionatzen, balio zuten. Orain ordenaren justifikaziorako balio du. Edozein dogmakeria mozortzeko, ordena mundial berria bedekintzeko, Boterearen aurpegia arrotzatzen. «*Ya resulta patético que sea la España del GAL continuado, cuyo dictador había muerto en la cama, la que pretenda juzgar a Pinochet, como lo es que le reclame un juez por cuya competencia —entre otras cosas— han pasado impunes en España demasiados casos de tortura, como que salga indemne del juicio el poder estatal y económico de los Estados Unidos, cuyo brazo armado fue el general chileno*». Hori da gaurko Ilustrazioa: «*La Ilustración que hoy domina como modernización arrasadora*». Atal batean Ripaldak sistematikoki lantzen ditu «*algunas bases sin las que el Holocausto no habría sido posible*» —zazpi puntu oso «*ilustratu*», gure gizartearen oinartxe berdin-berdin aurkitzen direnak...

Ilustrazioaren balioak proklamatu, ez da izpiritu kritikoa, eskatzen zaiguna, ordenaren onarpena baizik —«*tolerantzia*»—, txintxoak izatea, «*egiten dena*» egitea. «*Y es eso precisamente lo que constituye al súbdito, por oposición al ciudadano, y lo que destruye el proyecto de la Ilustración, que fue normativo sólo en forma innovadora y no en la forma pasiva de una razón constituida en su propia mitología*». Puntu batean bai, ironia saminez egiztatzatzen du Ripaldak, Ilustrazioaren unibertsaltasun ametsa konplitzen ari garela, esan daiteke, globalizazioaren arloan: arrazoimenaren inperio unibertsala, kapitalaren inperio unibertsala bilakatu da.

“  
Politiko guztiak  
ilustratuak eta  
etikoak bihurtu  
zaizkigu. Politikoak  
dira etikaz  
egunoro mintzo  
zaizkigunak, ez  
filosofoak  
”

“  
Ilustrazioaren  
balioak proklamatu,  
ez da izpiritu kritikoa,  
eskatzen zaiguna,  
ordenaren onarpena  
baizik, «tolerantzia»!  
txintxoak izatea,  
«egiten dena» egitea  
”

## ...hemeroteka

### EL PAIS

#### Ermuaren alde, arrazaren aurka

[JON JUARISTI]

Lehendabiziko aldir, nazionalistak gurekin izan gabe aterako gara kalera, manifestazio hau batez ere hiritar sentitzen garenona delako. Eta ez etnia bateko kide. Arratsalde honetako egoera jakin baten aurkako

manifestazioa da, eta abertzaleak, ETA eta Lizarrako hitzarmenekoak dira egoera horren guztizko erantzuleak. Manifestazioa Arzalluzek eta Otegi eraiki nahi duten Euskal Herriaren aurka da, nazionalismo etnikoaren aurkako, Ortuondo eurodiputatuaren euskal arraza biologikoaren aurka eta, halaber, Txillardegiren eta HBN dituen dizipulu guztien euskal arraza lin-

guistikoaren aurkako. Apustu bat da (euskal herritar izanik, azken batean, apustu egitea gustatzen zaigu) hiri demokratikoaren alde eta arraza-haitzuloaren aurka. Ermuaren, Euskadi babelikoaren, jende askeak, nork bere hizkuntza eta jatorria dituztenak, bizi diren hiri argitsu eta pluralistaren alde. Eta cromagnon klonikoaren Euskal Herri ilunaren aurka.



—Aurrera Thatcher maltea! —Matutes naiz! —Barkatu, izan ere memoria galdu dut.  
—Egia, bai! irakurri dut prentsan.